

Zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 3 PEZETA

Paulino Larrañaga eibartarra pinturan saritua

Ustaillaren lenengo igandean egin zan Biskaiko Mundaka errian IX Certamen de Pintura al aire libre, Bilboko Asociación Artística Vizcaina dalakoak eratu, Mundakako udaletza eta "Caja de Ahorros Vizcaina"ren laguntzarekin.

Presentatu ziran berrogeita bi lanetatik, Paulina Larrañaga eibartarra eraman zuan lenengo saria.

Askorentzat arrigarria izan zan aintbeste artista ezagun eta aipaturen tartetik ez ezagun bat irabazte ateratzea. Baina, Paulino Larrañaga-ren inguruan maiz ibiltzen geroz ez gñan arritu. Aspaldi danik etengabeke lanez aurrera ta gora ekarren gure Paulinok bere artegintza, ta bai berari ta bai bere inguruan ibiltzen diran beste zenbait aristari amaika aldiz esan diegu sariketetan agertzeko, obeak gutxi ta txarragoak asko ikusten ditugulako. Ta, ara, gure usteak egi.

Paulino Larrañaga, ogibides, grabadorea da, Eibarren "gubilistia" esaten degun oietako. Orretan oso ezaguna degu probintziako lantegintza, baiña aspaldiko urtetan bere txolarte libreetan hobby-tzat pintura du. Orain dala ilte gutxi, Eibarren izan zuen erakusketa aretan, Agustín Ibarrolak esan zidan: "pinturatik bizi diran askok baiño obeto daki".

Berak atseginiñan dituan gaiak paisajea eta erretratua dira, maiz eta inoiz komposizio eta bodegoren bat edo beste egin. Dibujugilla bezala biziki ona da. Eta orrak laguntza dio bere egiteko ara azkar ta seguruan. Irudimen bizkorrekoa da, ta egiteko eru apaletatik joaten da. Kolore illunetara jotzen du, urdin, bioleta, berde, ta lur kolorea. Beltza ere tarrean duelarik, oiek dirala geien erabiltzen dituanak. Arin azaltzen du bere lana, geiegiako ikuturik gabe.

Zenbait euskeltzalek ikusiko zituzten bere dibuju lanak eskuetan. Bereak bai dira Umand'iren Grama-

tica vasca eta A. Onaindia'ren Milla Euskal-olerki eder liburuaren azal apaindurak. Bereak, beste batuzen artean, Mogel'en Peru Abarka (laugarren argitalpena) eta Etxaide'ren Fernando Plentziatarra liburuak daramazkuten dibujok.

Orrez gainera, Paulino, aspaldiko euskaltzalea degunetz, sarri izan da euskal irakasle ere.

Eiburren bada pintore gazte ondana bat, irakurrias, ikusiaz eta alkarri lagunduz pintura ondo ikasi dutenak. Beren arteko ditugu Karreaga, Beorlegi, Marcano, Iraegi, Alberdi, Barrutia ta abar. Beste zenbait kartelista aipatu gabe, Marfull, Zumaran, Segala ta abar diran bezala. Nere errikide ta adiskide oiek, dexisio faltaz baiño geiago lotzariz, esan ditekete ixillean ezkatuta nai dutela edo. Beren erruz, kanpora ez agertzearen, ez dira beaz bezala ezagutzen. Jazinto Olabe, beste eibartar ura bezala —izatez Zuloaga-gandik zeoro desberdina zan ura—, ixillean bere burua izkuturik. Ain ixillean eze, lortu du errotza baiño aruntzago ere ez ezaguna izatea, zergaitik Llano Gorostiza'k ez bai du jarri bere Pintura Vasca liburuaren biografietan, Olabe baiño askozaz txarragoak sartzen ditularik eta gainera Aurelio Arista'k bere lenengo maixuetariko bat Olabe izan zuala aitortua duelarik. Arren, gazte auekin ez dedilla ori gertatu.

Artistak kanpora begira jardun bear du, aburu guzien arriskueri arpegia emanaz, inoiz mingarri badira ere beti bai dira erakuspide, ta luzarora txar baiño geiago on egiten du kritikak. Paulino Larrañaga'k, zorionez, puskatu du bilkura itxi ori ta gainerrakok jarraituko al diote.

Paulinok berriz, jarrai dedilla asi duen bide ortatik, berrido ere bere frutuak ikusteko izan gaitean. Zorionak!

J. SAN MARTIN

ZUBIAURRETARRAI OMENALDIA GARAY'N

Garay'n jalo zan Balendin Zubiaurre Urionabarrenetxea, 1837'garren urtean, eltza zarraren ondoko etxean. Bere denboran solulari aipatuetako bat izan zan: Ledesma ta Eslaba'ren ikasle izana, eta gero Madrilleko Kontsektorioan irakasle. Baita erregaen jauregiko elizan kantari-taldearen artezkari, direttore ta. Berak idatzirikoa meza bat kantetan eben Durango'ko Frantzisko Deuren Komentuko mojak, nere gazte denboran, San Fernando'ko Akademiku be izentau eben. 1914'garren urtean II zan, eta Madrilleko kanposantuan dago lurremonda.

Gerra ostean ezagutu gñan, Bilbon. Amaika bider igon neban nik oñez edo bixikeletan Durangotik rora Oiz mendi aundilaren altzoran dagoan Garay erri politera: 1962'ko iraillan, ordu batzuk bakarrik neukazan Durangotik igaro zean. Baneklan oso aguratuia egoala, eta Iñaki Aizpuru ta biok egin gertauan ikustadi arineketatzu bat.

Larogel urte laltzer beteizeko eta osasun larrilagaz, beso bat apurtuta eukala aurkitu gendun. Begiak (arek herba egiten eben Balendin'nen begi zoliak!) bai, begiak argi ta bixkor oraindik, baiña gorputza gelditua eta gure lenagoko gauzak eta fagoratzeko almena gelena joanda.

Bizkorrago aukitu gendun urte batzuk lenago, Jesus Etxano ta bere seme biakin joan nintzanean, oporraldietan etxean egon nintzan uia batean.

Madrillen egon naz alargunagaz (Durango'ko Pilar Elejoste) joan diran gabonetan, Balendin'nen azkenengo egunak eta orduak kontau eustazan. Bizi izan zan moduan joan el-zan: kristinau on ba ts ten

eran. Egunen batean idatzi bearko dodaz onek eta Balendin adiskide onaren beste gauza asko, Jaungoikok gure badau-gure.

OMENALDIA GARAY'N, III ONEN AZKENENGO ASTEAN

Irabazi dabe omenaldi bat Zubiaurretarrak Durango'ko "Gerediaga"-koak eta Garay'ko agintariak antolatu dabe erakusketa bat Garay'ko Zubiaurretarren jauregiatzean. III onen azkenengo aste osoan izango da erakusketa au. San tiyau-Sant'Ana jailetan zahalduko daube, eta aste osoan iraungo dau.

Euskalerrri gustia ikustea gure geunke Garay'n datorren astean. Okerrik ez bada, eta Jaungoikok gure badau-gure, gu be an izango gara.

An agurtuko doguz Erramun eta Pilar Zubiaurre neba arrebak, eta beste euskal-ederri zate asko be.

BITAN

ON BALENDIN ZARRAREN SEME ALABAK

Bergarako Paz Aguirrezabal-ekin ezagutu zan Zubiaurre solularia. Iru seme alaba euki ebezan: Balendin, Erramun eta Pilar. Madrillen jalo zan Balendin, Garay'n Erramun. "Juan de la Encina" eder (i-izilariagin ezkondu zan Pilar, eta Mejico'n bizi da orain, bere seme Leopoldo injinieragin. Madrilleko "Museo de Arte Moderno"-ren zuzendari eta Mejico'ko Unibersidadean irakasle izan da "Juan de la Encina", orain pare bat urte II dana.

BALENDIN GAZTEA ETA ERRAMUN: "GARAYKO MUTUAK"

Gor-mutuak jalo ziran Balendin eta Erramun anal biak. "Garayko mutuak" izenakin ezagutzen dira beti Durango inguruetan.


Ikaste onak arte ebezan biak: herba egiten eta idazten ondo ikasi eben, eta pinetean, margo lanak egiten, izan aundia artu eben mundu guztian. Negua Madrillen emon da gero, Garayra etort' n ziran udarantz, Sant'yan-Sant'netarano. Emen emoten eben udia, Durango inguruetako mendik, erri ta bazterrak pinetean. Ondarruara be joaten ziran, iraille-urritzerantz.

EUSKALERRI ZARRA MUNDUA ZEAR ERAKUSTEN EUREN LAUKOEKAZ

Euskalerrriko Itxaso, mendik ta erriak, egunsenti ta illuntzietako lainu orl-porrituakin; bertako jendek, bierrak eta oiturak: baserri-tarrak, basoko eltxatxoak, Ondarruko marincak eta sardina-saltzailleak, txistulariak, bertolariak, epatadantzariak, aurrekulariak, kartajokulariak, goruetan andrak, iriprobak, erromeriak, eliz-inguruak, aintzinako jantzi-ra zarrakin al-kate-jaun eta agintariak, etxeko-andrak eta neska mutilak, abadeak, elzako ta errietako oitura zarrak... eta Euskalerrriko beste oitura asko erabilil dabez gaitzat Garay'ko Zubiaurre anal mutuak, benetako jatoriasunez margoztuta, pintautu, mundu guztian erakutsi dabe gure euskalerrri zarra.

JOAN ZAN BALENDIN

1963'garren urtean joan jakun Balendin, Madrillen II zan. "Zeruko Argia" Asteakari onetan argitaratu neuzan idazlan bat, oraingo au egiteorduan aurrean daukoda-na. Adiskide onak izan gñan biok.



ZUBIAURRETARRAI OMENALDIA GARAY'N

Datorren astean (25'tik 31'ra) Zubiaurre pintorien omenez erakusketa bat egingo da Garay'ko errian, Zubiaurretarren jauregiatzean. Durango'ko «Gerediaga» taldekoak eta Garay'ko agintariak antolatu daube erakusketa-omenaldi au. Ara emen Izurtza'ko eliza beak pintatutakoa.